

Urtebete igaro da liburutegietan formatu digitaleko liburuen mailegua eskaintzen hasi zirenetik. Horrek liburutegi eredu berriz pentsatzea ekarri du, eta espazio moduan eraldatzea. Hasi besterik ez da egin bidea.

Liburutegiak biziberritzeko bultzada

Ainara Arratibel Gascon-
Nora Arbelbide Lete

aztik dago martxan Hego Euskal Herriko liburutegi publikoetan liburuak formatu digitalean hartzeko mailegu zerbitzua. Horrek beste zerbitzu eredu bati begira jarri ditu liburutegiak. «Aukera paregabea da liburutegien zerbitzuak liburutegitik kanpo ateratzeko», adierazi du Asun Maestrok, Nafarroako Liburutegi Sareko arduradunak. Liburu elektronikoaren ezarpena ere aukera gisa ikusten du Iñigo Agotek, Euskal Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendariak. «Liburutegiak espazio moduan berriz pentsatzeko beharra dago, eta erabilera eta zerbitzu berriak liburutegiak biziberritzeko balio dezakete. Ezagutza eta kultura zabaltzeko eta dinamizatze guneak izan behar dute, eta komunitateak mobilizatzeko. Politika publiko batean, oso zerbitzu gutxi egongo dira hain errentagarriak». Liburutegien balio soziala aldarrikatu du, hain zuzen, Arantza Urkiak, Donostiako Udal Liburutegien Sareko arduradunak. Hiruiek prest ikusten dituzte bai liburutegiak, bai liburutegietan eredu berri horietara egokitzeko.

Eusko Jaurlaritzak liburu elektronikoak mailegatzeko plataforma propioa jarri zuen martxan. Bertan, udal liburutegi guztiak sartu ziren, Donostiakoak, Bilbokoak eta Santurtzikoak salbu. Baina horiek ere egin dute urratsa. «Plataforma propioa eta publiko bat edukitzeak gure bidea egiteko aukera eman digu», uste du Agotek. Horren onurak

zerrendatu ditu. «Argitaletxe guztiarekin elkarlanean ari gara; martxan jarri dugun lizentzia eredu ere berritzailea da, ez baitu epe mugarik; titulu eskaintza ere oso zabala da, 8.000 titulu eskaintzen baititugu; protagonismo handia eman diegu, gainera, liburutegietan». Balorazio positiboa



«Ezagutza eta kultura dinamizatze gune izan behar dute liburutegiak, eta gizartea mobilizatzeko»

Iñigo Agote
Eusko Jaurlaritzako Ondare zuzendaria

«Liburu elektronikoak sartu aurretik, hasiak ginen liburutegien eraldaketaren inguruan hausnartzen»

Asun Maestro
Nafarroako Liburutegi Sareko burua

«Oroz gainera, guztiak irekia den leku bat da, sozializatzeko gune bat; eta, gainera, urriak eskaintzen dena»

Magali Capoule
Baionako Mediatekako zuzendariordea

«Liburutegiko espazioak ezin dira mugatu erabilera bakar batera; askotarikoak izan behar dute»

Arantza Urkia
Donostiako Liburutegi Sareko burua

egin du lehen urteaz. Maestrok Jaurlaritzaren plataformaren indarguneak berretsi ditu. Nafarroak, ordea, Espainiako Gobernuak sustatutako plataformarekin egin

zuen bat. Pozik agertu da lortutako datuekin Maestro. Gainera, izan dituzten trabak ekarri ditu gogora. «Adibidez, guk eskaintzen ditugun formatuak ez dira bateragarriak Kindlerekin; Amazonek ez du nahi halako plataformetan sartu. Kontuan hartuta liburu elektronikoak duten herritarren erdiek Kindle dutela, argi dago kopuru hori handiagoa izango litzatekeela».

Ipar Euskal Herrian, oraingoz, gailuak eskaintzen dituzte. Hala egiten dute, adibidez, Baionako mediatekan. Magalie Capoule mediatekako zuzendari ordeak azaldu duenez, zortzi dituzte orotara. Baina liburu elektroniko horietan, mementoko, bakarrik gutxienez duela 70 urte hil diren autoreen liburuak biltzen dituzte, egile eskubiderik gabeko liburuak direnak.

Kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki balorazio positiboa egin dute hasitako bidez. «Aspalditik heldu nahi genion. Beharbada, zertxobait berandu iritsi gara, liburu elektroniko oso errotua baitzegoen gizartearen zati batean, eta zerbitzu publiko moduan errealitate horri erantzun behar genion», esan du Maestrok. Atzera begiratu gabe, gerora begira jarri da Agote: «Orain ikusi behar duguna da, adibidez, ea beste eduki batzuetara zabal daitekeen: musika, ikus-entzunezkoak... Batzuk hasiak dira liburutegi amaigabeen kontzeptu edo filosofiaz hizketan». Bilakaera zein azkar gertatu den nabarmendu du Urkiak. «Duela hiru hamarkada eskas hasi ginen paperezko liburuaren mailegua egiten».

Maestrok eredu aldaketa horri erantzuteko prest ikusten ditu li-

8.000

EUSKO JAURLARITZAREN
PLATAFORMAK EGUN ESKAIN-
TZEN DITUEN TITULUAK

1.800

NAFARROAKO
GOBERNUAREN
PLATAFORMAKO
ERABILTZAILAK

22.117

URTARRILETIK IRAILERA
EUSKO JAURLARITZAREN
PLATAFORMAN IZANDAKO
MAILEGUAK

8.500

BAIONAKO MEDIATEKAK
GAUR EGUN DITUEN
HARPIDEDUNAK.

Erabiltzaile bat liburu elektronikoarekin. JAGOBA MANTEROLA / ARP

burutegiak. «Zorionez, liburu elektronikoak sartu aurretik hasiak ginen horretan pentsatzen. Ikusten genuen horren beharra». Behar hori ez zuten soilik ikusten liburu elektronikoaren zabal-kundeagatik, baita liburutegietan paperezko liburuaren maileguak behera egin duelako ere. «Egun-ko irakurleei nobedadeak irakurtzea gustatzen zaie; maileguak horiei lotuta daude. Aurrekontuan izan ditugun murrizketen ondorioz, nobedade gutxiago erosi ahal izan ditugu, eta irakurle gutxiago datoz».

Bestalde, formatu digitaleko liburuaren mailegua Internetez egin daitekeenez, irakurleekin harremana apur bat galdu dutela aitortu du. «Hasieran etortzen dira

galdetzerak, batez ere kontu teknikoak. Baina, behin martxa hartuta, ez dira etortzen. Plataformaren bidez egiten dute mailegua». Agotek, dena den, gogorarazi du zenbait irakurleek denbora zerratuta liburutegira joan gabe, eta berriz itzuli direla plataformaren pasahitza eta abar lortzeko.

Erabiltzaile berriak lortze aldera, «hausnarketa eta azterketa fase batean» daudela nabarmendu du Maestrok. Haren ustez, abiapuntuak hau izan behar du: «Liburutegia espazio bat da, jendeak gauza askotariko erabil dezakeena, ez bakarrik irakurtzeko, liburuak maileguan hartzeko edo ikasteko. Eduki eta zerbitzu berriak bete behar ditugu». Antzera mintzatu da Capoule: «Oroz gai-



netik, guztiei irekia den leku bat da, sozializatzeko leku bat, eta urririk».

Zerbitzu berriak

Hortik abiatuta, liburutegiko bestelako zerbitzuen erabilera sustatzearen alde azaldu da Maestro. «Adibidez, teknologia berriei lotutakoak: wifi sarea, tabletak... Erresuma Batuan, esaterako, badira liburutegietan lanerako guneak deitutakoak. Wifi konexioa doan dute han, eta langileak hara joaten dira lan egitera. Bestalde, kontuan izan behar da azken urteetan gora egin duela liburutegietako wifi konexioen erabilerrak. Etxe askotan, krisia dela eta, kendu egin behar izan dute, eta erabiltzaile asko gurera etortzen

dira». Mediatekaren kasuan, adibidez, wifia urririk eskaintzen dute, eta bi tableta ere badituzte han erabili ahal izateko

Bestalde, Maestrok eta Agotek gogorarazi dute gaur egungo irakurketa gero eta sozialagoa dela. «Jendeak irakurtzen duenari buruzko iritziak trukatu nahi ditu, eta horregatik lortu dute arrakasta irakurketa klubek. Liburutegiak horiek egiteko gune izatea indartu behar da».

Bestalde, aurretik dauden zerbitzuak indartzearen alde ez ezik, berriak sortzearen alde ere azaldu da Maestro. «Adibidez, liburutegi batzuetan hasiak dira mintzapraktika egiteko guneak eta aukerak eskaintzen, eta artistek beren sormena lantzeko eta erakus-

teko lekuak ere izan daitezke». Beste hainbat proposamen egin ditu Agotek. «Adibidez, bitartekoak eskain daitezke editatzeko, edo teknologia berriei lotutako zerbitzu berriak: 3D inprimagailuak, adibidez. Bestalde, liburutegiek sare moduan duten indarra baliatu daiteke, sare proiektu asko bultzatzeko, ez bakarrik kultur alorrekoak, gainera». Hezkuntzari lotutako erabilera berriak aipatu ditu Urkiak. «Bizi osorako prestakuntza gero eta indar handiagoa hartzen ari den honetan, autoprestakuntzarako gune izan daitezke».

Capoulek azaldu du animazioak ugaritzearen alde egin dutela beraiek. «Ez daukagu espazio bereziturik animazioetarako.

Baina ditugunak erakusketa, kontzertu eta hainbat animazioetarako egokitzen ditugu. Solastatzeko lekua ere izan daitezke» Hori guztia lortzeko eraikin modernoagoa izan nahiko lukezela aitortu du.

Hain zuzen ere, eraikinak dira liburutegiek dituzten indargune eta oinarrietako bat. Baina horiek dira, aldi berean, liburutegien bilakaera lortzeko trabetako bat. «Espazio horiek isiltasunarekin daude lotuta: ikastearekin, irakurtzearekin eta liburu mailarekin, eta kosta egingo da espazio horiek berriz egokitzea eta planteatzea. Gainera, askotan, balio arkitektoniko handiak dira, eta ezinezkoa da horietan esku hartzea», esan du Maes-

trok. Diseinu eta arkitektura aldetik, liburutegi berriek ez dute zerikusirik garai batekoekin. «Indarra hartuz doazen zerbitzuen arabera, espazioen egitura-keta eta beharra aldatuz joango dira». Etorkizuneko liburutegietan espazioak definitzerakoan orain arte baino malgutasun handiagoa egon behar duela nabarmendu du Urkiak. «Garrantzitsua da, era berean, espazio bat ez mugatzea erabilera bakar batera, eta gaitasuna izatea aldian aldiko beharretara egokitzeko. Horrek altzariak mugikorrak izatea eskatzen du»

Bestalde, Urkiak adierazi du orain arteko funts bibliografiko batzuk kentzen ari direla espazio berriak sortzeko. «Adibidez, entziklopediak pixkanaka kentzen ari gara». Dena den, ez dituzte guztiz kenduko. «Liburutegietako funts bibliografikoak berez dira murriztak. Tarte txikia dago kentzeko. Entziklopedien kasuan, gainera, ez ditugu guztiz kendu behar, badagoelako jendea Internet erabiltzen ez duena, eta horiek papera behar dute».

Liburuzainen egitekoak

Maestrok gogorarazi du errealitate berri horrek ez duela aldatuko liburuzainen egiteko nagusia. «Idazleen, liburu eta irakurlearen arteko bitartekariak izango gara aurrerantzean ere, eta bertan dauden liburu aukeraketa ere egingo dugu». Horren garrantzia ikusarazi behar dutela uste du. «Irakurle batzuek esaten digute liburu elektronikoa dutela eta ez direla gehiago etorriko, ez gaituztela behar. Hori kezagarria da». Horri lotuta, liburu elektronikoaren inguruan jaso duten prestakuntza gogorarazi du. «Beharbada, ez gaituzte beharko liburuak maileguan hartzeko. Baina beste gauza askotan lagun diezaiekegu. Adibidez, legezko edukiak doan topatzen». Bestalde, liburutegiak dinamizatzen jarraituko dutela uste du. Agotek adierazi du liburuzainek izan behar dutela liburutegien bilakaeraren «orientatzaile eta laguntzaile».

Liburuzainek irakurzaletasuna sustatzeko egin dezaketen ekarpena ere berretsi du Urkiak. «Irakurtzen duen gizarte bat gizarte kritiko eta hobe bat da». Hiruiek prest ikusten dituzte liburuzainak erronka horri heltzeko: «Oso pertsona aktiboak dira. Alde horretatik, gogoz ikusten ditut. Ez da kolektibo itxi bat, berrikuntzari eta etorkizunari bizkar ematen diona, eta hori garrantzitsua da», esan du Agotek.